



**Prentsa oharra**

**Elikagaien Bankuen aldeko elkartasun kanpaina**

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK MILIOI BAT OTORDUEN ERRONKA LORTU DUTE URTE OSOAN 500 FAMILIA MANTENTZEKO**

- Guztira 750.000 kilo janari baino gehiago bildu dira kanpaina apirilean abiatu zenetik joan den asteburura arte Kilo Operazioaren barruan
- Elikagaien Bankuek kolektiborik zaurgarrienei emango diete bildutakoa, haien oinarritzko premiak betetzen laguntzeko
- EROSKI joan deneko hogeitun urtean baino gehiagoan ari da FESBALekin

Elorrio, 2020ko uztailaren 3a.- [EROSKI](#) eta haren bezeroek *milioi bat otorduen erronka* betetzea lortu dute, eta, horri esker, 500 familia inguru mantendu ahalko dira urtebetez. Orain aste batzuk abiatu zuen elkartasun ekimena, eta kanpaina bera apirilean abiatu zuen denda sare osoan, [Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioaren](#) alde.

Elkartasun ekimena hasi zenetik Kilo Operazioarekin aurreko asteburuan amaitu den arte, 750.000 kilo janari eta higiene produktu baino gehiago bildu dira, eta Elikagaien Bankuei emango zaizkie kolektiborik zaurgarrien oinarritzko beharrak betetzen laguntzeko.

1.300 saltokik baino gehiagok (supermerkatuak, hipermerkatuak eta frankiziak) aukera eman diete beren bezeroei ekarpen ekonomiko bat egin dezaten Elikagaien Bankuen alde. Bestalde, EROSKI 30 tona elikagai emanak dizkie Elikagaien Bankuei kanpaina honetan, premiarik larrienak estaltzeko modua izan dezaten.

*"Beste behin, eskerrak eman nahi dizkiegu bezeroei borondate eta eskuzabaltasun handia erakutsi baitute elkartasun ekimen honetan. Elkartasun maila handia erakutsi dute jende asko egoera zaurgarrian gelditu den osasun krisi honetan. Ekimen honekin, Elikagaien Bankuekin dugun lankidetzaren indartu dugu; horretan dihardugu joan deneko hogeitun urtean baino gehiagoan", azaldu du EROSKIren Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.*

*"Beste behin ere, EROSKI eskertu nahi dugu FESBALi halako une zailean laguntzeagatik. Oraingoan ere, EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari esker, gure biltegietan janari asko sartu ahal izan dugu, ondoren ongintzako erakundeen*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



*bitartez beharrik handiena dutenen artean banatzeko", esan du Elikagaien Bankuko Espainiako Federazioko zuzendari nagusiak, Miguel Fernandez jaunak.*

### **Hogei urtean baino gehiagoan Elikagaien Bankuekin lanean**

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak eta kontsumitzaileek berek proposatuta, behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakustea galdegiten zuten eta. Hala, urte horretan bertan hasi zen Kilo Operazioa, elikagaien bilketa kanpaina, EROSKIko dendetan.

Gero, EROSKI martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa. EROSKIren programa honek eta Elikagaien Bankuek jarraitzen dute 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian. 6.700 tona elikagai baino gehiago emanak daude iaz gizarte entitateei programa honen barruan.

EROSKI egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)